



**Informazioa, Barañaingo
haur ikastetxe
publikoetan sartzeko**

**2020 - 2021
Ikasturtea**



Ikasle berrien eskaerak

Argibide orokorrak

Barañaingo Udal Haur Eskoletarako plazen deialdi honek Barañain I-Euskara eta Barañain II-Gaztelania ikastetxeak hartzen ditu.

Eskaera aurkeztu dezakete 2018/01/01a eta 2020/05/13a artean jaiotako haurren familiek.

Bigarren aukera gisa egin diren eskaerak soilik hartuko dira kontuan ikaspostu hutsak geratzen direnean Zentro horretan, lehenengo aukerako eskaeren ikaspostuak behin esleitu eta gero.

- Ezinbestez bete behar dira eskaera-orrain agertzen diren atal guztiak.
- Ezinbestez sinatu behar dute, guraso edo tutore biek, eskaera-orrria.



ESKAERAK AURKEZTEKO EPEALDIA:
martxoaren 16tik 27ra.

NON AURKEZTU:
Herritarrek Hartzeko Bulegoan.
Ordutegia, astelehenetik ostiralera, 8:30etik
14:00etara.

Erregistro elektronikoa:
<https://sedeelectronica.baranain.es/eu/registro-electronico/>

Dokumentazio orokorra



GURASO BIENA –alarguntza, legezko banantzea edo dibortzio kasuetan izan ezik-

- ✓ **HAURRAREN JAIOTEGUNA ETA ESKATZAILEAREN BIZILEKUA EGIAZTATZEN DITUEN AGIRIA.**
- ✓ **NAN** edo **IFZren FOTOKOPIA**
- ✓ **FAMILIA LIBURUAREN FOTOKOPIA** (gurasoen eta seme-alaben atalak) edo, hala balegokio, agiri ofiziala osorik.
- ✓ **LAN-EGOERA**, 2020ko otsailaren 27tik martxoaren 27rainoko epealdiari dagokiona:
 - Gizarte-segurantzako afiliatuek: Lan-bizitza edo Alta, aipatutako epealdian. (Tel. 901 50 20 50).
 - Gizarte-segurantzara afiliaturik EZ dauden haiek:
 - Funtzionarioek: Haien Departamenduko egiaztageria.
 - Profesional liberelek: Ekonomia-Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) fotokopia eta azken BEZ Aitorpena.
 - Enplegu-eskaera txartelaren (eguneratuta) fotokopia.
 - Hiru urtetik beherako haurrak zaintzeko eszedentzian egonez gero, eszedentziaren jakinarazpena aurkeztuko da, eta, hala balegokio, idatziz **AZALDU**ko da 2020ko urriaren 16a baino lehenago lanera itzultzeko aurreikuspena duela (adierazpen eredua emango zaizue).
- ✓ **IKASLE DIREN GURASOAK:** Ikasketa arautuen matrikularen, egutegiaren eta ikasturteko ordutegiaren fotokopia.
- ✓ **PERTSONA FISIKOEN AZKEN EKITALDIKO ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN AITORPENAREN FOTOKOPIA.** Aitorpena egitera derrigorturik ez dauden gurasoek zinpeko Adierazpena aurkeztu behar dute, eta bertan 2018ko errentak eta diru-sarrerak jaso behar dira (Adierazpen eredua emango zaizue).
- ✓ **ERROLDATZEA:** Baraïnainen erroldatuta egotearen agiria (seme-alabarena eta aitarena eta/edo amarena). Eskaera-orria aurkezterakoan emango zaizue eskatzaileoi.





Dokumentazio berezia, hala badagokio

- Haurra harrera-egoeran dagoela edo adoptatua dela frogatzen duen agiria.
- Banantze edo dibortzio epaiaren fotokopia (hitzarmen arautzailea barne).
- Ezkon-loturarik gabeko bikoteen kasuetan, epaiaren fotokopia (legezko neurriak, hitzarmen arautzailea barne).
- Guraso bakarreko egoeran dauden familientzako dokumentazio espezifikoa.
- Familia unitateko edozein kideren minusbalio/elbarritasunaren maila frogatzen duen agiria.
- Familia unitateko edozein kideren ezintasun iraunkor osoko, absolutuko edo baliaezintasun handiko pentsioduna dela frogatzen duen agiriaren fotokopia.
- Familia ugariaren titulua.
- Zaintza eta jagoletza dituen aitak, amak edo legezko tutoreak Barañainen ari dela lanean frogatzen duen agiria. Herrian erroladatuta egonez gero, EZ da beharrezkoa.
- Jaio gabeko haurren kasuan:
 - Aitaren eta/edo amaren edo legezko tutoreen erroldaren ziurtagiria.
 - Noizko jaioko den aurreikusten duen Ziurtagiria (jaiotzarako epemuga: 2020ko maiatzaren 13a). Haur baten eskaeraren onarpena baldintzatuta dago, jaioteguna baieztatuko baita (2020ko maiatzaren 24a baino lehen jaiotza ziurtagiria aurkeztu beharko da).
- Txosten MEDIKOA edo PSIKOLOGIKOA honako kasu hauetan:
 - Gaixotasuna edo arazo medikoa.
 - Arrisku faktoreak izatea, besteak beste, ume goiztiarra, jaioberri arazoak, ...
 - Garapen fisiko, psikiko edo sensorialean gabeziak edo atzeratasunak zeintzuk eskatzen baitute hezkuntzan barne hartzea.
- Haurraren minusbalioa kalifikatzeko ziurtagiria eta/edo haurraren mendekotasun handia (III.gradua) aitortzen duen egiaztagiria eta/edo profesional batek egindako txostena, dituen ezaugarriengatik hezkuntza berezia behar duela dioena.
- Beste edozein egoera berezi baloratzeko frogagiriak.





OHARRAK

- Egiaztatzen bada eskabidean adierazitako datuak **faltzuak** direla, emandako **ikaspostua kenduko zaio**.
- Eskabidean jasotako datuei buruzko ziurtagiriak aurkezten ez badira, ez dira kontuan hartuko.
- Hautapen Batzordeak zilegi izanen du edozein unetan eskatzea hautapen baremoan puntuazioa duten inguruabarrei buruzko frogagiriak zuzentzeko.

ORDUTEGI OSOKO JARDUNA

Sarrera ordua: 7:30etik 9:30era.

Irteera ordua (aukeran):

- Jantokirik gabe: 12:00etan.
- Jantokiarekin: 13:00etan.
- Jantokia eta siestarekin: 15:15etik aurrera.
(asteazkenetan 15:30ak arte,
gainontzeko egunetan 16:30ak arte)

Ikasturteko egutegia onartzeke dago.

Aurtengo ikasturtekoa kontsultatu daiteke orientagarri gisa.





HAUR IKASTETXE PUBLIKOAK

Zentroa: **BARAÑAIN I (EUSKARAZ)**
Helbidea: Udaletxeko etorb. zk.g.
Telefona: 948 186 950
e-posta: einfantil@baranain.com
Taldeak: 0 - 3 urtekoak

Zentroa: **BARAÑAIN II (GAZTELANIAZ)**
Helbidea: Zizur Zendearen ingurab.,54
Telefona: 948 287 693
e-posta: einfantil03@baranain.com
Taldeak: 0 - 3 urtekoak

Solairu bakarrek eraikina dugu Haur Ikastetxea, gune argitsuekin zeintzuetan indartzen baitira gorenera kanpo eta barruaren arteko harremanak, kanpoaldeko patio zabal batera irteera zuzena baitute ikasgela guztiek.

Elkarren ondoan daude gune osagarriak, besteak beste sendabaratza, tailerra, psikomotrizitate gela eta jantokia... eguneroko lanaren mesedetan.

Gure hezitzaile- taldearen helburu nagusia hauxe da: herriko txikienei familia giroa eskeintzea, beti ere, errespetuan, konfiantzan, elkarlanean oinarrituta.

la 1.000 metro karratuko azalera eraikiarekin, Gaztelaniazko Haur Eskola haurrei arreta zuzena emateko 6 gelatan banatzen da, dagozkien bainugela eta siestekin, lau aisialdirako gunerekin, bi estalki eta bi estali gaberekin, edoskitzaileentzako aisialdirako gune eskusibo batekin, hiru jantokirekin, sektore bakoitzeko bat: adinekoak, ertainak eta bularreko haurrak.

Besaulkietarako gela estalia, esperimentazio-tailerra, eta garbiketa- eta lehortze-gela, sukaldea, bulegoak, aldagela eta biltegiak.

Barañaingo gune pribilegiatu batean kokatua, haurrek euren beharren parean talde profesional batez inguratuta gurekin gozatu eta ikasi ahal izango dute.



OHARRAK

*Barañaín I eta II Haur Eskoletara sartu ahal izateko ezinbestekoa da haurrak egunean egotea txertaketa egutegi ofizialarekin.

Gurasoek txertaketa-txartela nahitaezko baldintza gisa aurkeztuko dute matrikula egiteko unean.

Kartillarik ez badago edo haurra medikuaren aginduz txertatuta ez badago, medikuaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu behar da.

Hautatzeko baremoa



A) AITAREN eta AMAREN EGOERA SOZIOLABORALA edo AKADEMIKOA (20 puntu gehienez)

- ✦ Lanean biak* _____ 20 puntu
- ✦ Biak ikasketa arautuak egiten _____ 20 puntu
- ✦ Bata lanean* eta Bestea ikasketa arautuak egiten _____ 20 puntu
- ✦ Guraso bakarreko familiak lanean* edo ikasketa arautuak egiten _____ 20 puntu
- ✦ Bata lanean* edo ikasketa arautuak egiten eta Bestea lan bila _____ 15 puntu
- ✦ Guraso bakarreko familiak lan bila _____ 15 puntu
- ✦ Guraso biak lan bila _____ 10 puntu

**Lanean bezala hartuko da, aita eta/edo ama –amatasun eszedentzian egonik- lanera bueltatzen bada, gehienez ere, 2020ko urriaren 16an.*

B) FAMILIAREN OSAERA (gehienez metatzen ahal den puntuazioa: 15 puntu)

- ✦ Deialdi eta ikastetxe berean bi seme-alabarentzat edo gehiagorentzat ikaspostua eskatzen duten familiak* _____ 15 puntu
- ✦ 6 urtetik beherako bi seme-alaba edo gehiago dituzten familiak (2014/01/01 eta 2020/03/27ra artean jaioak) _____ Puntu 1 (seme-alaba bakoitzeko)
- ✦ Guraso bakarreko familiak _____ 5 puntu
- ✦ Familia ugariak _____ 5 puntu
- ✦ Familia unitateko edozein kidek %33ko edo gehiagoko minusbaliotasun fisiko, psikiko edo zentzumenekoa badu _____ 4 puntu

**Ikaspostuaren erreserba sartzen da, baita jaiogabearentzako eskaera ere. Biak matrikulatuak izatearen baldintzapean. Puntuak jasotzen dira bi anai-arrebez edo gehiagok aldi berean ematen badute izena, baita Zentroan hurrengo ikasturtean jarraituko duen anai-arrebaren bat izateak.*





C) FAMILIA UNITATEAREN URTEKO ERRENTA MAILAK (15 puntu gehienez, metatu ezin dena)

- ✦ 15.000 eurotik gora. _____ 1,5 puntu
- ✦ de 12.400,01 - 15.000 euro. _____ 3 puntu
- ✦ de 10.700,01 - 12.400 euro. _____ 4,5 puntu
- ✦ de 9.300,01 - 10.700 euro. _____ 6 puntu
- ✦ de 7.980,01 - 9.300 euro. _____ 7,5 puntu
- ✦ de 6.650,01 - 7.980 euro. _____ 9 puntu
- ✦ de 5.500,01 - 6.650 euro. _____ 10,5 puntu
- ✦ de 4.500,01 - 5.500 euro. _____ 12 puntu
- ✦ de 3.350,01 - 4.500 euro. _____ 13,5 puntu
- ✦ 3.350 euro edo gutxiago. _____ 15 puntu

D) ERAGINPEKO EREMU GEOGRAFIKOA (gehienez metatzen ahal den puntuazioa: 20 puntu)

- ✦ Barañainen erroldatuta dago haurra, baita aita eta/edo ama eta/edo legezko tutoreak ere, 2020ko urtarilaren 1a baino lehendik. _____ 20 puntu
- ✦ Barañainen ari da lanean aita eta/edo ama edo legezko tutorea. _____ 8 puntu
- ✦ Barañaingo 1. zikloko haur eskola batean lanean aita eta/edo ama eta/edo legezko tutoreak ere. _____ 5 puntu

E) BESTE IRIZPIDE BATZUK:

- ✦ Hautatze Batzordeak aintzat har ditzake, behar bezala egiaztatuta egonik, aurreko ataletan jaso ez diren beste egoera batzuk zeintzuk baitira larriak diren behar pertsonalak, familiarenak edo sozialak. _____ 10 puntu arte

Oharra: Puntuazio berdinketa kasuetan, lehentasuna izanen dute:

1. Zentroan anai-arrebak dituzten haurrek.
2. Familia errenta txikiena duenak.
3. Berdinketarekin jarraituz gero, Hautatze Batzordeak ebatziko du zozketa baten bidez.





Tarifak 2020/2021 ikasturterako

Familiaren diru-sarreraren arabera bideratuko dira ordainketak.

- Finkatu diren gehienezko hileko tarifak dira:
 - Eskolatzea: 198 €
 - Jantokia: 95 €
- Eskolatzte unean finkatuko dira tarifa horiek, eta ikasturtean zehar 10,6 hilabete ordainduko dira.
- Murrizketak egin ahal izanen dira honela.

PER CAPITA ERRENTAREN TARTEAK		ESKOLATZEA		JANTOKIA		ESKOLATZEA+JANTOKIA	
Zenbateko honetatik	Honetara	✓ ✓	✓	✓ ✓	✓	✓ ✓	✓
15.000 baino handiagoa		198	179	95	84	293	263
12.400,01	15.000	169	152	95	84	264	236
10.700,01	12.400	133	120	95	84	228	204
9.300,01	10.700	104	94	95	84	199	178
7.980,01	9.300	82	74	84	66	169	140
6.650,01	7.980	60	54	84	66	144	120
5.500,01	6.650	54	48	66	52	120	100
4.500,01	5.500	44	43	58	42	102	85
3.350,01	4.500	33	31	56	32	89	63
3.350 edo txikiagoa		20	18	52	25	72	43

✓ ✓ Guraso biko familiak

✓ Guraso bakarrek familiak edo bakarrekotasun egoeran dagoena

≠ Horretaz gain, bigarren seme-alabaren eskolatzte eta jantokiko kuota % 50 murriztuko zaie Baraiaingo Udalaren Haur Ikastetxean bi seme-alaba matrikulatuta dituzten familiei.

≠ Kuota-salbuespena dute diagnostikatutako garapen-arazoa duten haurrak dituzten eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden familiek.

► Urteko per capita errentatzat hartuko da familia unitateko zerga-oinarriaren(1) zenbatekoa (2019 ekitaldiari dagokien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpena) zati familiako(2) kide guztien kopurua. Kasu guztietan bi gurasoen Aitorpena hartuko da kontuan, banantze epaia, dibortzioa edo ezkontzaz kanpoko seme-alabagatiko legezko neurriak daudenean izan ezik (kasu horietan guztietan, haurraren zaintza eta jagoletza duen gurasoaren Aitorpena hartuko baita kontuan).

Kalkulatutako diru-sarreratik, zaintza eta jagoletza ez dituen gurasoak seme-alaben mantenurako urtean ordaindu-takoa kenduko da.

(1) Ondorio praktikoetarako, errenta kalkulatzeko lauki txo hauetako kopuruak batuko dira: Nafarroako Foru Komunitatean, 2019. ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpeneko 507, 8810, 8808 ken 708, edota horien guztien baliokide direnak Estatuko gainerako aitorpenetan.

(2) Familia unitateko kide kopurua osatzeko kontuan hartuko dira hala egiaztatuta dutenak matrikula egiterakoan. Hortaz, aitak, amak edo tutoreak, eta haien kargu dituzten seme-alabak zenbatuko dira. Elbarritasuna (% 33 edo gehiago) duen seme-alabarengatik bikoitza zenbatzen da.



Prozesuaren datak

- **BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATZEA** maiatzak 11
NON argitaratuko dira zerrendak:
 - * Udaletxeko iragarki-oholean
 - * Udalaren Haur Ikastetxeetan
 - * Udalaren Webean: www.barañain.eus**948 012 012** telefonora deituta ere eskura izanen duzue informazioa.
- **ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEA** maiatzaren 11tik 15era
Herritarrak Hartzeko Bulegoan, Udaletxean (8:30etik 14:00etara).
Inolaz ere ezin izango da hautatze-baremoan puntuazioa lekarkeen dokumentaziorik konpontzea.
- **BEHIN BETIKO ZERRENDAK** maiatzak 25
Behin-behineko zerrendak argitaratu diren leku beretan argitaratuko dira.
Onartua izanaren banakako jakinarazpenik ez da bideratuko.
- **MATRIKULA EGITEA** maiatzaren 25etik 29ra
Herritarrak Hartzeko Bulegoan, Udaletxean (8:30etik 14:00etara).
Erregistro elektronikoa (<https://sedeelectronica.baranain.es/eu/registro-electronico/>)
 - ... soilik behin betiko zerrendan onartuak izan diren haurren familiek bideratu dezakete.
 - borondatezko bajak diren kasuetan izan ezik, eskolara joateko konpromisoa eta ezarrita dauden tarifak ordaintzea dakar.

AUKERETAKO BATEAN MATRIKULA EGITEAK GAINONTZEKO AUKERAK BAZTERTZEA DAKARKI.

EPEALDI HONETAN EZ BADA GAUZATZEN MATRIKULA, IKASPOSTUARI UKO EGITEN ZAIOLA ULERTUKO DA ETA ESLEIPEN BERRI BATERAKO BIDEA EMAN.



Ikasturtea 2020ko irailaren 1ean hasiko da eta 2021eko uztailaren bukaeran amaituko da.

Zentro bakoitzak jakinaraziko dio familiari zein izango den haur bakoitzaren hasiera-eguna, egokitze epealdiaren arabera.

ARGIBIDEAK ETA DOKUMENTAZIOA NON:

www.baranain.es

www.barañain.eus

